

HEZKIDE ELKARTEA

HEZKUNTZA ERAKUNDEEN PROZEESUEN ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA

2.MAILA / III. MODULOA

GIZARTE HEZKUNTZA ETA PEDAGOGIA

2017/10/31



MIMAU TALDEA:

Aira Calero, Ainhoa

Beitia Letamendi, Unai

Txintxurreta Maiztegi, Maddi

Usandizaga Altube, Maider

AURKIBIDEA:

1.Sarrera: Elkartearen aurkezpena eta justifikazioa	2
2.Elkartearen estatutuak	4
3.Elkarte akta eta zuzendaritza batzordea osaeraren plantila	18

1.SARRERA: elkartearen aurkezpena eta justifikazioa

Sortu berri dugun “ Hezkide” elkartearekin hezkuntza eremuan hezkidetzak bultzatzea nahi dugu, horretarako hezitzaileak hezkidetzan formatuz. Beraz, orain esan bezala, elkarte honek burutuko duen lana hezitzaileak formatzean oinarrituko da, hauekin hezkidetzako ikuspegia landuz.

Hezkuntzako agente bakoitzak erabakiko du gurekin izan nahi duen hartu-emanak nolakoa izango den, hau da , iraupen ezberdinetako formazioak eskainiko dizkiegu. Horrela, formazio hauetan, hezkuntzan aritzen diren hezitzaile eta agenteekin genero-sexualitate sistema landuko da. Horretaz gain, Aukera Berdintasunaren araudia ezagutzera emango ditugu erabiltzaileak eta tresna ezberdinak eskainiko ditugu genero ikuspegia hezkuntza programa eta proiektuetan txertatzeko. Hau guztia, arlo teoriko zein praktikoa uztartuz eramango dugu aurrera. Horretarako, formazioak, dinamikak, tailerrak, eztabaidak, hausnarketak... erabiliko ditugu metodologia bezala.

Esan beharra dago, Hezkide elkartearen helburu nagusia hezitzaileak hezkidetzan formatzea dela, baina modu dinamiko eta eramangarri batean. Hori dela eta, sarrera honetan, guk eskaintzen ditugun formazioaren eduki garrantzitsuenetarikoa batzuk aipatu nahi ditugu. Hala, hainbat modutan lantzeko formazio bat eskainiko dugu, formakuntza horren barruan beharrezkoa ikusten dugu elkarrekiko interdependenteak diren gai jakin batzuk lantzea. Prestakuntza hezkidetzaille bat eman nahi badugu, oinarrizko edukietatik hasi, eta konplexuagoetarako tartean era askotako gai eta alderdiak lantzeko beharra ikusten dugu. Ondorengo hauek dira Hezkide elkarteak eskaintzen duen formazioak barne hartzen dituen gai ezberdinak:

- Genero desberdintasunak eta genero-sistemak.
- Hezkidetzak dokumentuetan lantzeko metodoak.
- Hezkuntza hezkidetzaillea.
- Genero rolen barne- eta kanpo-lanketa.
- Indarkeria matxista kasuen aurrean hartu beharreko neurrien ezagutza.
- Jolas hezkidatzeileak.
- Gelaren antolaketa ez-sexisten ezagutza.
- Sexu-heziketa nerabeekin lantzeko tresnak.
- Sexu-heziketa haur eta lehen hezkuntzan lantzeko tresnak.
- Hezigaiak aniztasunean hezteko tresnak.
- LGTBI eta feminismoen ezagutza.

Gure helburu nagusia hezitzaileak hezkidetzan formatzea den arren, baditugu beste zenbait helburu ere, hala nola:

1. Haurrek heziketa hezkidetzaileria jasotzea
2. Hezitzaileek jarrera hezkidetzaileriak barneratzea
3. Etorkizuneko jendartea hezkidetzaileria izatea
4. Egungo biolentzia eta gutxiespenak desagertzea
5. Egungo gizartean dauden estereotipo, rol eta arau sozialak iraultzea

Elkarteko misioaz hitz egiten dugunean, egiten dituen ekarpenen inguruan jarduten dugu; izan ere, elkarteak zenbait ekarpen zehatz ditu. Aurretik esan bezala, gure helburua hezitzaileak hezkidetzan formatzea bada, gure elkartearen ekarpena ere erro beretik doala esan dezakegu; hala, hezitzaileei ikuspegi hezkidetzaileria ematean. Horretarako, behar beharrezkoa ikusten dugu hezitzaileei aurretik ditugun genero ikuspegi ezberdinak hautsi eta ikuspegi hori aldatzeko tresnak ematea. Honekin batera, ezinbestekoa ikusten dugu hezitzaileei rol eta estereotipoetatik ateratzeko baliabideak eskaintzea. Honetarako, pentsamendu kritikoa lantzeaz gain, jolas ez sexistak aurrera eramateko baliabideak ere eskainiko genizkieke. Beraz, esan genezake hezitzaileek jarduten duten eremu guztietan ikuspegi hezkidetzaileria txertatzea dela elkartearen ekarpen zehatza, horretarako, ikuspegi hezkidetzaileria eskainiz eta beraien jarrerak aldatzeko baliabide edo tresna ezberdinak emanaz.

Aipatu beharra dago, gure elkarteak formazio ezberdinak eskaintzeaz gain, ezinbestekotzat duela lan egiten duen eta harremanetan ibiltzen den erabiltzaileen nahi eta beharrei moldatu behar izatea beti. Izan ere, ez da berdina izango irakasle batek duen beharra edo udalekuetako begirale batek duena. Horregatik, hezitzaileekin lan egiteaz gain, kontuan hartzen dugu hezitzaile bakoitza zein eremutakoa den. Gure lan eremua pertsona hauek izatea ezinbestekotzat ikusten dugu, izan ere, pertsona hauen bidez, etorkizuneko jendartea eraldatzea da azken xedea. Hau izan da, elkarte sortzerakoan jarri genuen helmuga eta oraindik ere berau izaten jarraitzen du.

Hezkidetzaz zergatik?

Hezitzailea, gaur egun dugun agente garrantzitsuenetariko bat da, gizartea aldatu nahi badugu eta berdintasunean nahiz errespetuan oinarritutako gizarte bat eratu nahi baldin badugu, ezinbesteko subjektua dugula uste dugu. Aldaketa bat emateko hezkuntza garrantzitsua den bezala, hezitzailea bertako erreferente izanik, are garrantzitsuagoa dela uste dugu. Hori horrela, ezinbestekoa da eskola komunitatea osatzen duten eremu nahiz pertsona guztiek genero ikuspegia txertatzea eta aurretik esan bezala, berdintasunaren alde lan egitea eta prestakuntza izatea.

Horrez gain, Indarkeria matxista dagoen gizarte batean bizi gara eta hori, genero-desberdintasunen eta diskriminazioen adierazle dugula esan genezake. Hori gutxi balitz, gaur egungo ikasleek, oraindik ez dutela modu librean aukeratzen euren ikasketa eta lana uste dugu; hemen ere, generoaren araberrako segregazioa nabarmena delakoan gaude.

Honek, lan munduratzeko eta parte-hartzeko bidea baldintzatzen dutelakoan gaude gainera. Heteronormarekin apurtzeko beharra ikusten dugu, horretarako profesional ezberdinekin hezkidetzak landuz. Hau da, emakume nahiz gizon ona izatearen buruzko ideiak oso barneratuta ditugu, eta horiek apurtzeko beharra ikusten dugu, profesional ezberdinak formatuz.

Aipatutako guzti hau hezkuntza munduan aztertzea beharrezkoa da, eta asko eta asko dira hezkidetzaren inguruan gaur egungo hezkuntzak dituen hutsuneak. Hutsune horiek bete nahian sortu dugu elkarte hau, lehen esan bezala ezinbestekoa baita hezitzaile guztiak hezkidetzan formatuak eta profesionalak izatea. Aldi berean, formakuntza mota hau gure testuinguruan behar den moduan lantzen ez den zerbait dela ikusi dugu. Gauzak aldatu egin diren arren, hezkidetzak arloan lan asko dugu oraindik egiteko. Diotenez, gaur egungo gizartea inoiz baino gehiago formatua dago, baina formakuntzaz hitz egitean ahaztu egiten zaigu pertsonaren formakuntza. Formakuntza pertsonalaren alderdi garrantzitsuenetako bat prestakuntza hezkidetzak baita. Edozein formakuntza maila izan dezakegu, gradu bat, modulu bat, doktoretza bat... baina gehienetan guztiak izaten duten gabezi bat da arlo hezkidetzakarena. Formakuntza mota hau prestakuntza guztietatik at geratzen den alderdia izanik, honi garrantzia eman eta sustatu nahi dugu.

Gure elkarteak, hezitzaileak formatzean oinarritzen denez, batik bat profesionalekin lan egiten du. Profesional hauek, hezkuntzako eremu ezberdinetakoak izan daitezke; irakasleak, udalekuekako monitoreak, gizarte hezitzaileak, gizarte integratzaileak ... orokorrean, hezkuntza munduan murgiltzen den profesional ororentzat bideraturiko elkarteak dela esan dezakegu beraz.

2. ELKARTEAREN ESTATUTUAK:

LEHENENGO KAPITULUA

IZENA ETA LEGE-ARAU BIDEA

1. artikulua.- Irabazi-asmorik gabeko Hezkide izeneko elkarteak eratu da, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoan eta Eusko Legebiltzarrak onartutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legean ezarritakoen arabera eta Euskal Herriaren Autonomia Estatuaren 9. eta 10.13 artikuluetan azaltzen denarekin bat etorritik.

Elkartea arau hauen mende egongo da: aipatutako elkarteei buruzko legeak, estatutu hauek (legearen aurkakoak ez badira), elkartearen gobernu-organoeak behar bezala hartutako erabakiak (legearen edota estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onesten dituen erregelamenduzko xedapenak (azken horiek osagarriak izango dira).

ELKARTEAREN HELBURUAK

2. artikulua.- Elkarre honen helburuak honako hauek dira:
Hezitzaileak hezkidetzan formatzea

Helburu horiek lortzeko, jarduera hauek egingo dira, ezarritako legezko betekizunak bete ondoren:

Hezitzaileekin formazioak, tailerrak, eztabaidak, irteerak...

Aurreko paragrafoan azaldutako jarduerak gorabehera, elkarteak, bere xedeak betetzeko, honako hauek egin ahalko ditu:

- Helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak biltzeko era guztietako jarduera ekonomikoak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak edozein tituluren bidez eskuratu eta eduki, eta mota guztietako egintzak eta kontratuak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, betiere legeekin eta Estatutuekin bat etortzekotan.

ELKARTEAREN EGOITZA

3. artikulua.- Elkarre honen egoitza helbide honetan egongo da:
Kalea: Gaztelu Plaza
zk.: 11, 3 ezkerria
Herria: Iruña

Elkarreak beste lokal batzuk ere eduki ditzake Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrek hala erabakitzen badu.

LURRALDE-EREMUA

4. artikulua.- Elkarre honek nagusiki lurralde-eremu honetan gauzatuko ditu bere zereginak: Nafarroa, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba.

IRAUPENA ETA DEMOKRAZIA-ARAU

5. artikulua.- Elkartea iraunkorra izateko eratu da, eta IV. kapituluaren esaten den bezala ezohiko batzar orokorrean hartutako erabaki bidez baino ezingo da desegin, edo legetan aurreikusitako arrazoiren batengatik.

Elkartearen funtzionamendua eta barne-antolamendua demokratikoa izango da, eta pluraltasuna erabat errespetatuko da. Erabat deusezak izango dira elkartzeko oinarrizko eskubidearen alderdietako edozein betetzen ez duten itunak, estatutu-xedapenak eta erabakiak.

BIGAREN KAPITULUA

AGINTE- ETA ADMINISTRAZIO-ORGANOAK

6. artikulua.- Elkartearen agintea eta administrazioa kide anitzeko organo hauen esku egongo da:

- Bazkideen Batzar Orokorra izango da organo gorena.
- Zuzendaritza Batzordea izango da kide anitzeko zuzendaritza-organoko iraunkorra.

BATZAR OROKORRA

7. artikulua.- Batzar Orokorra bazkide guztiek osatzen dute, eta organo honen bidez adierazten dira bazkideen nahiak.

Batzar Orokorraren ahalmenak:

- a. Elkartearen jardura-plan orokorra onartzea.
- b. Urteko kontuak eta hurrengo ekitaldiko aurrekontua aztertu eta onartzea.
- c. Zuzendaritza Batzordearen kudeaketa onartzea.
- d. Estatutuak aldatzea.
- e. Elkartea desegitea.
- f. Lehendakaria, idazkaria, diruzaina eta kide anitzeko aginte-organoko gainontzeko kideak, baldin badaude, izendatzea eta kargutik kentzea; eta horiek guztiak ikuskatu eta kontrolatzea.

- g. Beste elkarte batzuekin batera federazioak eta konfederazioak osatzea, edota horietatik ateratzea.
- h. Ondasun higiezinak erabili edo besterentzeko erabakiak hartzea.
- i. Aginte-organoko kideei ordaindu egin behar zaiela erabakitzea, hala komeni bada.
- j. Kuota arruntak eta bereziak ezartzea. Ahalmen hau, hala ere, Batzar Orokorrak aginte-organoari eskuordetu diezaioteko horretarako bereziki hartutako erabakiaren bidez.
- k. Bazkideak behin betiko kanporatzeko erabakia hartzea.
- l. Beste organo sozialen bati esleitu gabeko beste edozein eskumen.

8. artikulua.- Batzar Orokorrak ohiko bilkurak eta ezohiko bilkurak egingo ditu.

9. artikulua.- Batzar Orokorrak gutxienez urtean behin egin beharko du ohiko bilkura: hiruhilekoan izango da, 7. artikuluko a), b) eta c) idatz-zatietan zehaztutako erabakiak hartze aldera.

10. artikulua.- Batzar Orokorra Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen duenean bilduko da ezohiko bilkuran, bere ekimenez edota bazkideen %.....(e)k eskatu duelako. Bilkura eskatzeko arrazoiak eta helburuak azaldu beharko dira baina, nolana ere, honako gaiak aztertzeko eta erabakitzeko bilduko da:

- a) Estatutuak aldatzeko.
- b) Elkartea desegiteko.

11. artikulua.- Batzar Orokorra biltzeko deialdiak idatziz egin behar dira, eta bilkuren tokia, eguna eta ordua adierazi beharko dira, bai eta gai-zerrenda ere, eztabaidatuko diren gaien aipamen zehatzarekin. Deialdia egiten denetik gutxienez hamabost egun pasatu beharko dira bilkura lehen deialdian egiteko. Hala badagokio, bigarren deialdiaren data eta ordua ere adieraz daitezke. Dena dela, deialdi batetik bestera gutxienez ordu erdiko tarte utzi beharko da.

Batzar orokorrak, ohikoak nahiz ezohikoak, lehenengo deialdian balio osoz eratuta geratuko dira botoa emateko eskubidea duten elkartekideen herena bertaratzen bada; eta bigarren deialdian, botoa emateko eskubidea duten elkartekideen kopurua edozein dela ere.

12. artikulua.- Batzar Orokorraren erabakiak gehiengo soilez hartuko dira, hau da, bertaratuen nahiz ordezkatuena baiezko botoak ezezkoak baino gehiago

direnean. Alabaina, bertaratuen edo ordezkatuena gehiengo kualifikatua beharko da (baiezko botoak baliozko botoen erdia baino gehiago izatea, alegia) erabaki hauek hartzeko :

- a. Elkartea desegitea.
- b. Estatutuak aldatzea.
- c. Ondasunak erabili edo besterentzea.
- d. Ordezkaritza-organoko kideei ordaintzea.

13. artikulua.- Bazkideek beste edozein bazkideren esku utzi dezakete batzar orokorretara joateko ordezkaritza. Ordezkaritza hori idatziz eskuordetu beharko da, eta Batzarreko idazkariari eman bilera baino gutxienez ordu lehenago. Elkartearen egoitza dagoen herritik kanpo bizi diren bazkideek ordezkaritza beste norbaiten esku uzteko agiria postaz bidali dezakete.

ZUZENDARITZA-BATZORDEA

14. artikulua.- Zuzendaritza Batzordea da Batzar Orokorraren xedapen eta zuzentarauei jarraikiz elkartearen interesak kudeatu eta ordezkatzeko dituen organoa. Elkartekideek baino ezingo dute osatu ordezkaritza-organoa.

Zuzendaritza Batzordea osatuko dutenak honakoak izango dira:

Beitia Letamendi, Unai

Txintxurreta Maiztegi, Maddi

Gutxienez astean 1 aldiz bildu beharko dute, eta elkartearen ekintzak bideratzeko beharrezkoa den guztietan.

15. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideren bat bilera horietara 2 aldiz jarraian, edo, tarteka 3 aldiz agertzen ez bada, dagokion kargua utzi egin beharko du, hutsegite horiek ez baditu arrazoitzen.
16. artikulua.- Batzar Orokorrak hautatuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kargudunak. Kargu horiek 1 urterako izendatuko dira Batzordeak berariaz baliogabetu ezean. Kargudun berbera behin eta berriro hautatu ahal izango da.
17. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, ezinbestean baldintza hauek bete beharko dira:

- a. Adin nagusikoa izatea, eskubide zibil guztien jabe izatea, eta indarrean dauden legeetan ezarritako bateraezintasun-arrazoirik ez izatea.
- b. Estatutuetan aurreikusitako moduan izendatua izatea.
- c. Elkarteko bazkidea izatea.

18. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kide izateko, lehendabizi, Batzorde Orokorrak izangaia hautatu behar du eta, gero, izendatu horrek kargua onartu behar du.

Zuzendaritza Batzordeko kideen dieta eta gastuak ordaintzea erabaki dezake Batzar Orokorrak.

19. artikulua.- Zuzendaritza Batzordeko kideek kasu hauetan utziko dituzte karguak:

- a) Agintealdia bukatzen denean.
- b) Dimititzen baldin badute.
- c) Bazkide izateari uzten diotenean, edo kargua betetzeko ezintasun-arrazoiak dituztenean.
- d) Estatutu hauetako 16. artikulua aplikatuz, Batzar Orokorrak kargua baliogabetzea erabakitzen duenean.
- e) Hiltzen baldin badira.

“a)” idatz-zatian agertzen dena baldin bada kargua uzteko arrazoia, Zuzendaritza Batzordeko kideek jardunean jarraituko dute lehenengo batzar orokorra egin arte. Batzar horretan aukeratuko dira kargudun berriak.

b), c), d) eta e) idatz-zatietan agertzen dena baldin bada arrazoia, hutsik gelditutako kargua betetzeko norbait behin-behingo izendatuko du Zuzendaritza Batzordeak, eta Batzar Orokorrak erabakiko du izendapena onetsi ala ez. Ezetsi egiten badu, behar diren kargu izendapenak egingo ditu.

Organo honen osaeran egiten diren aldaketa guztien berri emango zaio Elkarteen Erregistroari.

20. artikulua.- Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen zereginak:

- a) Elkartearen eguneroko kudeaketaz arduratzea, Batzar Orokorraren jarraibideekin bat etorriz eta haren kontrolpean.
- b) Elkarreak aurrera eramango dituen ekintzen egitaraua egitea.

- c) Gastu eta sarreraren urteko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera-orria Batzar Orokorrari aurkeztea, hark onar ditzan.
- d) Batzar Orokorraren bileretako gai-zerrendak egitea, eta ohiko nahiz ezohiko batzar orokorretarako deialdia egiteak egitea erabakitzea.
- e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea eta horien inguruan hartu beharreko neurriak hartzea.
- f) Estatutu hauetako aginduak interpretatzea eta Estatutu etako hutsuneak betetzea, betiere elkartearen inguruan indarrean dauden legeekin bat etorriz.
- g) Batzar Orokorrak berariazko erabakien bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

21. artikulua.- Zuzendaritza Batzordearen bilkurak lehendakariak erabaki edo batzordekide batek eskatzen duen bakoitzean egingo dira. Bilkurako buru lehendakaria izango da, ez balego, lehendakariordea; eta horien faltan, batzordekide zaharrena.

Batzordeak hartutako erabakiak baliozkoak izateko, biltzen diren batzordekideen gehiengoak aldeko botoa eman behar du. Horretarako, gutxienez batzordekideen kopuruaren erdiak egon beharko du bilkuran. Berdinketarik egonez gero, lehendakariaren kalitateko botoa izango da erabakiko duena.

Idazkariak bilera-aktak egingo ditu eta akta horiek gero dagokion liburuan transkribatuko dira.

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARIA

22. artikulua.- Lehendakariak beregain hartuko du elkartearen legezko ordezkariak, eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak hartutako erabakiak gauzatuko ditu. Era berean, aipaturiko bi organo horietako lehendakaria izango da.

23. artikulua.- Lehendakariak honako hauek denak egiteko ahalmena izango du:

- a) Zuzendaritza Batzordearen eta Batzar Orokorraren bilera-deiak egin, bilerak bukatutzat eman, bileretan sortzen diren eztabaidak bideratu, eta boto-berdinketa gertatuz gero kalitate-botoarekin erabakitzea.

- b) Elkaratearen ekintzen egitasmoa Zuzendaritza Batzordeari proposatzea eta elkaratearen zereginak bultzatu eta bideratzea.
- c) Baliotasunez erabakitako ordainketak egiteko agintzea.
- d) Sortzen diren premiazko arazoak konpontzea, eta egiten den lehenengo bilkuran Zuzendaritza Batzordeari horren berri ematea.
- e) Batzar Orokorrak berariazko erabaki bidez ematen dizkion eskumenak erabiltzea, betiere ez badira haren eskumen eskusibokoak.

LEHENDAKARIORDEA

24. artikulua.- Lehendakariordeak lehendakariari lagunduko dio, eta lehendakariak aldi batean bere kargua bete ezin badu, lehendakariordeak ordezkaturiko du. Era berean, lehendakariak berariaz eskuordetzen dizkion ahalmen guztiak izango ditu.

IDAZKARIA

25. artikulua.- Idazkariari dagokio, zehazki, elkarrean sartzeko eskabideak jaso eta izapidetzea, fitxategia eta Bazkideen Erregistro Liburua zaintzea, eta Akta Liburuaren zaintzaren eta idazketaren ardura izatea.

Era berean, elkarrean arloan indarrean dauden legezko xedapenak betetzeaz arduraturiko da, erakundearen agiri ofizialak zainduz, elkarreko liburuen eta artxiboen edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordeko izendapenen eta egoitza sozialaren aldaketan berri emateko egin beharreko jakinerazpenak eginez agintari eskudunari.

DIRUZAINA

26. artikulua.- Egindako diru-sarrera eta ordainketen berri emango du diruzainak, eta diru-sarrera eta gastuen urteroko aurrekontua eta aurreko urteko kontuen egoera ere jakinaraziko du. Horiek guztiak Zuzendaritza Batzordeari aurkeztu behar dizkio, eta horrek Batzar Orokorrari, hark onartu ditzan.

HIRUGARREN KAPITULUA

BAZKIDEAK: ONARTUAK IZATEKO BALDINTZA ETA PROZEDURAK, ETA BAZKIDE-MOTAK

27. artikulua.- Elkartekide izan nahi eta baldintza hauek betetzen dituzten pertsona guztiak izan daitezke elkarteko bazkide:

- Adin nagusikoa edo adingabe emantzipatua izatea, norberaren eskubideak erabiltzeko inolako lege-baldintzaren menpe ez egotea eta ebazpen judizial irmoaren bidez eskubideen erabilera mugatuta ez edukitzea.

Pertsona juridikoak izanik, organo eskudunak baliotasunez hartutako erabakiaren kopia aurkeztu beharko dute eta, bertan, elkartearen eratu nahi dutela eta ordezkari gisa norik jardungo duen adierazi beharko dute.

28. artikulua.- Elkartean sartu nahi duenak idatziz aurkeztu beharko du bere eskabidea, bi bazkideren sinadurarekin eta lehendakariari zuzenduta. Lehendakariak eskaeraren berri emango dio Zuzendaritza Batzordeari, eta horrek erabakiko du eskabidea egin duena elkartean onartu ala ez. Erabakiaren aurkako gorako errekurtsioa jar daioke Batzar Orokorrean.

BAZKIDEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

29. artikulua.- Elkarteko bazkide guztiek honako hauek denak egiteko eskubidea dute:

- 1) Elkarrekin buruzko Legearen edo Estatutuen kontrako erabaki eta jardunak inpugnatzea, inpugnatutako erabakiaren edukia ezagutu duten edo ezagutzeko aukera izan duten egunetik egutegiko 40 eguneko epean.
- 2) Elkarrekin gobernu- eta ordezkari-organoen osakerari, elkarrekin kontu-egoerari eta elkarrekin jarduerari buruzko informazioa jasotzea.
- 3) Elkarteko beste bazkideen nortasuna, diru-sarreraren eta gastuen egoera, eta elkarrekin ekintzen garapeneren berri edozein unetan izatea, datu pertsonalak babesteko arautegian aurreikusitako moduan.
- 4) Batzar orokorretarako deiak jasotzea, batzar orokorretara joan eta hitz egin eta botoa emateko eskubidea erabiltzea, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatea.

- 5) Elkartearen Estatutu hauen arabera, elkarteko zuzendaritza-organoetan parte hartzea eta organo horietarako hautatzaile nahiz hautagai izatea.
- 6) Indarrean dauden legeetan zehaztutako bazkideen fitxategian agertzea, eta elkartearen ikurra, baldin badu behintzat, erabiltzea.
- 7) Estatutuen eta, egonez gero, barne-araudiaren ale bana edukitzea, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztea.
- 8) Elkartearen talde-ekintza sozialetan parte hartzea, eta bazkideentzako tresnak erabiltzea (elkartearen egoitza, liburutegiak, eta abar).
- 9) Bazkideari diziplinazko neurriak ezarri aurretik, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzea eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoiei buruzko azalpenak jasotzea. Neurriak hartzeko arrazoiak bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean soilik oinarritu daitezke.
- 10) Edozein unetan baja ematea. Hala ere, hartu bai baina bete gabe dituzten konpromisoak bete beharko dituzte.

30. artikulua.- Bazkideen betebeharrak hauek dira:

- a. Elkartearen helburuekin bat etortzea eta helburu horiek betetzen laguntzea.
- b. Kuotak, derramak eta Estatutuen arabera bazkide bakoitzari dagozkion bestelako ekarpenak ordaintzea.
- c. Estatutuetatik eratorritako bestelako betebeharrak betetzea.
- d. Elkarteko zuzendaritza-organoek baliotasunez hartutako erabakiei men egin eta erabaki horiek betetzea.

BAZKIDE IZATEARI UZTEA

31. artikulua.- Bazkide izateari uzteko arrazoiak honakoak izango dira:

1. Hil egitea (edo, pertsona juridikoen kasuan, desegitea).
1. Bazkidea bere borondatez joatea.
2. Arrazoi hauengatik, bazkide izateari uzteko zigorra jasotzea: Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausteagatik.

ZIGOR-ARAUAK

32. artikulua.- Bazkideek behin eta berriz hausten badituzte Estatutuak edo Batzar Orokorrak nahiz Zuzendaritza Batzordeak hartutako erabakiak, Zuzendaritza Batzordeak bazkide horiek zigortu ahal izango ditu.

15 egunetik hilabetea bitarte eskubideak kentzetik elkartetik betiko kanporatzea izan daiteke zigorra, ondorengo artikuluek adierazitako moduan.

Horretarako, zigorgarriak izan daitezkeen jokabideak aztertzeko ikerketa egin dadila erabaki dezake lehendakariak. Ikerketaren instrukziogilea idazkaria izango da, eta berak proposatuko dizkio Zuzendaritza Batzordeari hartu beharreko neurriak.

Zigorra ezartzeko ahalmena Zuzendaritza Batzordeak izango du, idazkariak ez du horretan parte-hartzerik izango (instrukziogilea delako), eta zigorra ezarri aurretik interesdunari entzunaldia eskainiko zaio. Zigortzeko erabakia arrazoitu egin beharko da beti, eta erabaki horren aurkako errekurtoa jarri ahalgo zaio Batzar Orokorrari.

33. artikulua.- Bazkideren batek elkartetik kanporatua izateko moduko ustezko egintzaren bat egiten badu, hau da, Estatutuotatik eratorritako betebeharrak eta Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak baliotasunez hartutako erabakietan ezarritako betebeharrak nahita eta larriki behin eta berriz hausten baditu, gertaeren berri izatearren, lehendakariak idazkariari agindu diezaioke aurretiazko eginbide zehatz batzuk egin ditzala, behar den informazioa jasotzeko. Eginbide horiek ikusita, lehendakariak jarduerak artxibatzeko agintzea edo elkartetik kanporatzeko zigor-espeditari hasiera ematea erabaki dezake.

34. artikulua.- Elkartetik kanporatzeko zigor-espeditatea hasten bada, idazkariak, gertakariak egiaztatu ondoren, idatzi bat bidaliko dio interesdunari, leporatzen zaizkion karguen berri emateko. Kargu horiei erantzuteko, interesdunak bere aldeko arrazoiak azaldu ahal izango ditu hamabost eguneko epean. Epe hori amaituta, edonola ere, Zuzendaritza Batzordearen lehenengo bilkurako gai-zerrendan sartuko da kasua, eta batzordeak hartuko du erabakia. Erabakian ez du botorik izango espeditetako instrukziogilea izan den idazkariak.

Elkartetik kanporatzeko erabakia interesdunari jakinaraziko zaio eta, era berean, hurrengo ezohiko batzar orokorrean errekurtsioa aurkez dezakeela azalduko zaio. Hiru hilabeteren barruan batzar horretarako deirik egiten ez bada, errekurtsioa ebazteko batzarrerako deia egin beharko da. Bitartean, Zuzendaritza Batzordeak inputatuari bazkide-eskubideak etetea erabaki ahal izango du, eta Zuzendaritza Batzordeko kide bada, kargu hori utzarazi beharko dio.

Batzar Orokorrari kanporatzeko espedientea aurkeztuz gero, idazkariak espedientearen laburpena egingo du, Zuzendaritza Batzordeak interesdunak aurkeztutako idatziaren eta egintzen berri zehatza Batzar Orokorrari eman ahal izateko, azken horrek dagokion erabakia har dezan.

35. artikulua.- Kanporatzeko erabakia arrazoitu egin behar da beti, eta erabaki hori interesdunari jakinarazi behar zaio. Interesdunak, eskubideaz baliatuz, auzitegietara jo ahal izango du bere ustez erabakia legearen edo Estatutuen aurkakoa bada.
36. artikulua.- Bazkideren bati kanporaketaren berri ematerakoan — berak nahi izanda edo zigorra ezarri zaiolako— bete gabe dituen betebeharrak bete ditzala eskatuko zaio.

LAUGARREN KAPITULUA

SORTZE-ONDAREA ETA AURREKONTU-ARAUAK

37. artikulua.- Elkartearen hasierako ondarea 5.000 eurokoa da.
38. artikulua.- Elkartek, bere jarduerak aurrera eramateko, diru-baliabide hauek aurreikusten ditu:
- a) Sarrera-kuotak.
 - b) Erabakitzen diren aldizkako kuotak.
 - c) Elkartearen ondasun eta eskubideetatik datozen emaitzak, eta legez jasotzen dituen diru-laguntzak, legatuak eta dohaintzak.
 - d) Zuzendaritza Batzordeak Estatutuen helburuak lortzeko egin beharrekotzat jotzen dituen jarduera zilegietatik datozen diru-sarrerak.

Elkarte- eta ekonomia-ekitaldia urtekoa izango da, eta urte bakoitzeko ekaina-ren 30 (e)(a)n itxiko da.

Elkarteak, jarduera ekonomikoak (zerbitzuak ematea barne) gauzatuaz lortzen dituen irabaziak bere helburuak betetzeko baino ez dira erabili beharko. Inola ere ezingo dira elkartekideen artean banatu, ez eta haien ezkontideen edota haiekin antzeko afektibitate-harremanean bizi diren pertsonen artean eta haien senideen artean ere. Ezingo zaizkie, halaber, irabazteko asmoa duten pertsona juridiko edo fisikoei doan laga.

BOSGARREN KAPITULUA

ESTATUTUAK ALDATZEA

39. artikulua.- Estatutuak aldatzea propio horretarako deitutako bazkideen ezohiko batzar orokorrean erabaki behar da. Zuzendaritza Batzordeak hiru bazkidek osatutako batzorde-txostengile bat izendatuko du, aldaketa-egitasmoa idazteko. Egitasmo hori Zuzendaritza Batzordeak ezarritako jarraibideen arabera egingo da, eta batzorde berak jarriko du egitasmoa amaitzeko epea.

40. artikulua.- Aldaketa-egitasmoa epe barruan idatzi eta gero, lehendakariak Zuzendaritza Batzordearen hurrengo bilkurako gai-zerrendan sartuko du. Zuzendaritza Batzordeak egitasmoa onartuko du edo, bestela, lantaldeari itzuliko dio, berriz aztertu dezan.

Egitasmoa onartuz gero, Zuzendaritza Batzordeak hurrengo batzar orokorreko gai-zerrendan sartzea erabakiko du edo, bestela, horretarako propio batzar orokor baterako deia egitea.

41. artikulua.- Batzarrerako deiarekin batera, Estatutuetak aldaketan testua bidaliko da, bazkideek egoki iruditzen zaizkien zuzenketak Idazkaritzan aurkeztu ahal izateko. Zuzenketa horiek Batzar Orokorrari helaraziko zaizkio, batzarra egin baino zortzi egun lehenago jaso badira Idazkaritzan.

Zuzenketak banaka nahiz taldeka egin daitezke, idatziz, eta aukerako beste testu bat izan beharko dute. Zuzenketak bozkatu ostean, Batzar Orokorrak Estatutuak aldatzeko erabakia hartuko du, eta Elkartearen Erregistro Orokorrean inskribatzen denetik aurrera baino ez du eragina izango hirugarrenengan.

SEIGARREN KAPITULUA

ELKARTEA DESEGITEA ETA ELKARTE-ONDAREAREN ZERTARAKOA

42. artikulua.- Elkartea arrazoi hauengatik desegingo da:

1. Bazkideek hala nahi dutelako. Nahi hori horretarako bildutako ezohiko batzar orokorrean azaldu beharko da.
2. Estatutuetan finkatutako epea edo baldintza bete delako.
3. Beste elkarteren batek xurgatu duelako edo beste elkarte batzuekin bat egin duelako.
4. Legez ezarritako gutxieneko bazkide-kopururik ez duelako.
5. Epai irmo batek elkartea desegitea agintzen duelako.
6. Elkartearen helburuak betetzea ezinezkoa delako.

43. artikulua.- Elkartea deseginez gero, desegiteko erabakia hartu duen Ezohiko Batzar Orokorrak Kitapen Batzordea izendatuko du. Batzorde hori Zuzendaritza Batzordeko lehendakaria eta lehendakari ordea kideek osatuko dute eta dagoen diruaz arduratuko da.

Bazkideekiko eta besteekiko elkarte-betebeharrak bete ondoren, geratzen den elkarte-ondarea, geratzen bada behintzat, irabazi-asmorik gabeko elkarte bati edo irabazi-asmorik gabeko ekimenei bati eman beharko zaio.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Eraketa-aktan behin-behingo izendatuak agertzen diren Zuzendaritza Batzordeko kideek egiten den lehenengo batzar orokorraren esanetara jarri beharko dute beren izendapena.

AZKEN XEDAPENA

Estatutu hauek garatzeko asmoz, Batzar Orokorrak barne-araudia onartu ahal izango du, baina horrek inolaz ere ez ditu Estatutuetako aginduak aldatuko.

3. ERAKETA AKTA ETA ZUZENDARITZA BATZORDEA OSAERAREN PLANTILLA

Iruñan, 2017ko Urria-ren 20an, 18.00e(t)an , ondoren azaltzen diren pertsonak bildu dira:

Izen-abizenak: Txintxurreta Maiztegi, Maddi

NANa: 72739179T

Helbidea: Kanpantxo 1, bajo C

Herria: Oñati

Nazionalitatea: Espainiarra

Izen-abizenak: Aira Calero, Ainhoa

NANa: 72608155F

Helbidea: Mons pasalekua, 111, 1 eskuma

Herria: Donostia

Nazionalitatea: Espainiarra

Izen-abizenak: Usandizaga Altube, Maider

NANa: 72853881R

Helbidea: Arantzazu auzoa, Kortakogain baserria, 30

Herria: Oñati

Nazionalitatea: Espainiarra

Izen-abizenak: Beitia Letamendi, Unai

NANa: 72846646B

Helbidea: San Lorentzo, 66, 4 ezk

Herria: Oñati

Nazionalitatea: Espainiarra

Batzarra bideratu dezan, Maddi Txintxurreta Maiztegi jauna/andrea batzarburu aukeratu da eta Unai Beitia Letamendi jauna/andrea idazkari.

Batzarburuak hitza hartu eta ekitaldiaren helburua elkarte bat eratzea dela adierazi du, Elkartzeko Eskubidea arautzen duen martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoarekin eta Legebiltzarrak onartu eta uztailaren 12ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 134. zenbakian argitaratutako Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearekin bat etorriz.

Jarraian, elkarteak arautu behar duten Estatutuak irakurri dira eta ondoren estatutu horien edukiari buruzko eztabaida-saioa zabaldu da.

Eztabaidatu ondoren, honako erabakiak hartu dira aho batez:

LEHENENGOA: HEZKIDE izena izango duen elkartearen sortzea. Elkartea Iruña herrian izango du egoitza soziala eta bere helburua Estatutuaren 6. artikuluan adierazten dena betetzea izango da. Elkartea zabalik egongo da bazkide berriak onartzeko.

BIGARRENA: Elkartearen barne-araubidea eta moldaera arautuko dituzten Estatutuak onestea. Akta honi erantsi zaio estatutu horien testua.

HIRUGARRENA: Elkartearen kudeaketa aruntaz arduratuko den Zuzendaritza Batzordea izendatzea. Aipatutako batzordeko partaideen izenak eta karguak erantsi zaizkio agiri honi.

LAUGARRENA: Maddi Txintxurreta Maiztegi jauna/andrea ahalmentzea, akta hau izenpetzen dutenen izenean eta haien ordezkari gisa, eraturako erakundea, soilik publikitate ondoriotarako, Eusko Jaurlaritzaren Elkartearen Erregistroan inskribatzeko beharrezkoak edo komenigarriak diren izapideak egin ditzan. Horretarako, honakoak aurkeztuko ditu: bazkide sortzaile guztiek sinatutako eraketa-akta honen bi ale, eta Estatutuen bi ale, Zuzendaritza Batzordeko lehendakariak eta idazkariak orri guztiak sinatuta.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez zegoenez, batzarra bukatutzat eman da egun bereko 18:00 e(t)an, eta azpian adierazitakoek sinatu dute akta, hartutako erabakiekin ados daudela adierazteko.

SINADURAK

Izen-abizenak: Txintxurreta Maiztegi, Maddi
IFZ:



Izen-abizenak: Aira Calero, Ainhoa
IFZ:



Izen-abizenak: Usandizaga Altube, Maider
IFZ:



Izen-abizenak: Beitia Letamendi, Unai
IFZ:



ELKARTEKO
BATZORDEA

ZUZENDARITZA

LEHENDAKARIA:

Izen-abizenak: Txintxurreta Maiztegi, Maddi

NAN-zk.: 72739179T

HELBIDEA: Kanpantxo 1, bajo C

LEHENDAKARIORDEA:

Izen-abizenak: Beitia Letamendi, Unai

NAN-zk.: 72846646B

HELBIDEA: San lorentzo 66, 4 esk

IDAZKARIA:

Izen-abizenak: Usandizaga Altube, Maider

NAN-zk.: 72853881R

HELBIDEA: Arantzazu auzoa, Kortakogain baserria, 30

DIRUZAINA:

Izen-abizenak: Aira Calero, Ainhoa

NAN-zk.: 72608155F

HELBIDEA: Mons pasalekua, 111, 1 esk

BATZORDEKIDEA:

Izen-abizenak: Puigdemont Pyuol, Mariano

NAN-zk.: 73485987G

HELBIDEA: Tolosa hiribidea, 24 , 4 esk

BATZORDEKIDEA:

Izen-abizenak: Sabater Torrente, Leticia

NAN-zk.: 72346578F

HELBIDEA: Intxarrundo, 192, bajo C

BATZORDEKIDEA:

Izen-abizenak: Williams Sarapova, Venus

NAN-zk.: 78521463J

HELBIDEA: San Lorentzo, 66, 8 esk

BATZORDEKIDEA:

Izen-abizenak: Casais Elorza, Jon
NAN-zk.: 458215697L
HELBIDEA: Matia kalea, 8, 2 ezk